

## **MOZIOA – IGARTZA SARIA, CAF ETA EUSKAL KULTURAREN DEFENTSAZ**

Beasaingo Udaleko EH Bilduren udal taldeak ondorengo mozioa aurkezten du, Saioa Alkaizak ukoa egin izanaren harira, azken asteetan Igartza Sariaren inguruan sortutako eztabaidari erantzunez:

### **1. IGARTZA SARIAREN BALIOA ETA EUSKAL KULTURARI EGITEN DION EKARPENA**

Igartza Saria —2000. urtetik aurrera Beasaingo Udalak, CAF enpresaren babesarekin, antolatzen duen literatura beka— berebiziko garrantzia du euskal kulturarentzat eta literaturarentzat. 35 urte arteko sortzaileei zuzenduta dagoenez, belaunaldi berriei euskaraz sortzeko eta literatura lanak garatzeko aukera ematen die, eta azken urteotan euskal literaturan erreferente bihurtu da.

EH Bildutik gure konpromiso sendoa berresten dugu Igartza Sariaren etorkizuna bermatzeko, euskarazko sorkuntza babesteko eta sustatzeko ezinbesteko tresna dela ulertuta.

### **2. GOGOETA ESKAERA CAF ENPRESAREN ZUZENDARITZARI**

Israelek Palestinan burutzen ari den genozidioaren testuinguruan, CAF enpresak Israelgo Estatuarekin dituen harreman komertzialek (Jerusalengo tranbia, besteak beste) eztabaida piztu dute gizartean eta nazioarteko komunitatean.

Gure ustez, enpresa batek bere erantzukizun soziala eta etikoa kontuan hartu behar ditu bere jardueretan, eta are gehiago, tokian tokiko komunitatearekin harreman zuzena duenean. Horregatik, CAF enpresaren zuzendaritzari dei egiten diogu gogoeta sakon bat egin dezan bere nazioarteko proiektuen inguruan, bakearen, giza eskubideen eta justizia sozialaren ikuspegitik.

### **3. ETORKIZUNERAKO BALDINTZAK: SARI BAT EZIN DA GIZA ESKUBIDEEN KONTRAKO JARDUERAKIN LOTU**

Igartza Sariaren etorkizuna bermatzea eta sariari lotutako babes instituzional zein ekonomikoek sentsibiltate sozialarekin bat etortzea ezinbestekoa da. Horregatik, EH Bilduk honako hau proposatzen du:

CAF enpresak aurrerantzean —Igartza Sariaren hurrengo edizioetarako— bere nazioarteko proiektuek giza eskubideekin bat egiten dutela bermatzen ez badu, Beasaingo Udalak babesle moduan beste alternatibak aztertzea eta babes horren baldintzak berrikustea. Beharrezkoa da kultura, sorkuntza eta giza eskubideen arteko koherentzia bermatzea.

### **ONDORIOZ, BEASAINGO UDALARI HONAKO ERABAKIAK HARTZEA ESKATZEN DIOGU MOZIO HONEN BIDEZ:**

- Igartza Sariaren balioa eta euskal kulturen egiten duen ekarpena publikoki aitortu eta babestea.
- Udalak konpromisoa hartzea bekaren etorkizuna bermatzeko. Horretarako, Igartza Sariaren babesleen baldintzak berrikustea eta giza eskubideen ikuspegitik koherentzia

bilatzea.

- Nazio Batuen Erakundeak, nazioarteko hainbat eragilek eta enpresako langile batzordeek eskatzen duten moduan, CAF enpresari Israelekin dituen harreman komertzialak eteteko eskaera egitea.

Beasaingo EH Bildu

2025/09/23